Kasu honetan ere, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari Udalbatzaren komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Lehendabiziko baldintza

Administrazio izaera duten entitateek aurrezki garbia positiboa izan dute 2014ko likidazioan (1.966.364,65 euro) eta diruzaintza kalkulatu duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 7.389.897,89 euro, eta lurreamendi egoitzak, 417.755,45 euro).

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2015eko zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan zehazten dira datuak:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2015
ZOR BIZIA 2015/12/31an	10.743.899
SARRERA ARRUNTAK. 2014ko likidazioa	28.982.188
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	37,07%
MUGA	95,00%

Kalkulua egiteko, 2014ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio 2015erako aurreikusi diren eragiketak eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Hau da banaketa zor biziaren banaketa:

-Udala	9.969.361,65
-Udala. 2015eko aurrekontuan aurreikusita	600.000,00
-Erretengibel Bankoa	105.044,00
-Erretengibel Kutxa	69.493,00
	10.743.898,65

2015erako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea da.

Hirugarren baldintza

Administrazio izaera duten entitateen behin-betiko aurrekontuak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2015erako helburua.

Dena den, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da, ondorengo taulan ikusten den moduan:

	Hasierako	Aldaketa	Aldaketa	Aldaketa	Aldaketa
--	-----------	----------	----------	----------	----------

OHIZKO OSOKO BILKURA
2015.11.24

Egonkortasuna	Aurrekontua (SEC) 2015	1/2015 (SEC) 2015	2/2015 (SEC) 2015	3/2015 (SEC) 2015	4/2015 (SEC) 2015
Sarrerak Kap.1 - 7	28.020.850,00	28.244.036,72	28.717.036,72	29.104.142,72	29.302.027,72
Gastuak Kap. 1 - 7	27.676.313,00	29.523.475,44	31.781.975,44	32.838.581,44	33.337.766,44
Superabita / Defizita	344.537,00	-1.279.438,72	-3.064.938,72	-3.734.438,72	-4.035.738,72
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		1.628.170,72	3.413.670,72	4.083.170,72	4.384.470,72
Finantzaketa ahalmena	344.537,00	348.732,00	348.732,00	348.732,00	348.732,00

Diruzaintza gerakinaren eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak 348.732,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 4/2015 kreditu aldaketa, guztira, 338.685,00 eurokoa izan da. 73.700,00 euro kreditu transferentzien bidez finantzatu dira eta 44.985,00 euro kanpoko sarrerekin.

Gainontzeko 220.000,00 euro diruzaintza gerakinaren bidez finantzatu dira. Kopuru hau ondorengo inbertsioak egiteko izango da:

	ZENBATEKOA
Hainbat eraikinetako obrak (Feriala)	185.000,00
Obratako ibilgailuak	35.000,00
GUZTIRA	220.000,00

lurreamendiren 1/2015 kreditu aldaketaren kasuan, guztira, 379.800,00 eurokoa izan da. 145.600,00 euro kreditu transferentzien bidez finantzatu dira eta 152.900,00 euro kanpoko sarrerekin.

Gainontzeko 81.300,00 euro diruzaintza gerakinaren bidez finantzatu dira. Honen zati bat, hain zuzen 48.300,00 euro, ondorengo inbertsioak egiteko izango da:

	ZENBATEKOA

Eraikinak	1.300,00
Makineria	13.000,00
Instalazioak	8.000,00
Altzariak eta ekipamendua	18.000,00
Informatika ekipamendua	8.000,00
GUZTIRA	48.300,00

Beste 33.000,00 euro makineria, instalazio eta tresnerien mantenimenduaren gastuei aurre egiteko erabiliko dira. Batez ere, igogailuan eta garbigailuan egin behar izan diren konponketetarako.

Udalean eta lurreamendin egin behar diren inbertsioak ez dira gastu errepikakorrak eta ez dute administrazio izaera duten finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, lurreamendi egoitzan makineria eta instalazioak konpontzeko aurten egingo diren ez ohizko gastu hauek ere ez dira seguruenik aurrerantzean errepikatuko.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan zen 2014ko aurrekontuaren likidazioan (1.966.364,65 euro), kontuak bateratu ondoren. Eta 2015eko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da. Hain zuzen ere, 1.101.401,00 euro, behin-betiko aurrekontuaren datuen arabera,

Zenbateko hau sarrera arrunten %3,9a da. Ratio hau gutxienez %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Udalaren 4/2015 eta lurreamendiren 1/2015 kreditu aldaketan ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua betetzen ez baditu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketa ondoz ez dela konprometituta geratzen.”

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

7. Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna dela eta,

7. Declaración Institucional con motivo del día internacional contra la

Udalaren adierazpena

violencia hacia las mujeres.

Partehartzeak:

- ... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE alderdiko zinegotzia: *“Hemen egin behar den galdera da zergatik beharrezkoa den oraindik horrelako adierazpena egitea. Zenbait Lan esparruan bereziki desberdintasunak daudelako edo festa esparruan emakumeak maiz erasoak jasaten dituztelako. Gaizki daude zenbat pentsamolde gure gizartean. Gaur bertan, Eusko Jaurlaritzak egin duen inkesta batean, oraindik gure artean %80k pentsatzen dute salaketa faltsu asko daudela. Hori horrela bada, arazo estruktural bat daukagu eta horregatik bozka baiezkoa emango dut.”*
- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBILDU): *“Gure aldetik baiezko bozka emango diogu. Irakurrita adierazpena, dena esana dago, baina bai aipatu nahiko nituzke hainbat gauza eta uste dut mozio honi aberastasuna ere ematen diotela: Batzordean era ezberdinetako emakumeak daude eta hasiera batetikan testua baldin bazegoen ere guztien ekarpenen islada ondo jasotzen duela mozio honek. Aipatu d Aipatu dezakegu arazo estrukturala, gure baitan azpimarratzekoa, dagoen mikromatxismoaren gaia. Askotan harritzen gara botere gabeko gertaerak ematen direnean, baina guzti horrek badu aurretik bide bat, eta, agian normalizazioaren arrisku horretan, gero gertatzen dira gertatzen direnak, eta usten dugu arreta, bereziki ere, hor jarri behar dela. Ezin da ezer besterik gabe pasa, bestela normalizatzen ari baikara hainbat jardun. Eta horrek eskatzen du ardura. Hemen eskatzen da ardura instituzioei. Gauza askotan instituzioei egozten dizkiogu ardurak, baina arlo batzutan, ardura pertsonalak ere hartu behar ditugu. Ezin dugu beste leku batetara begiratu. Agian, normala, inork arazoetan ez du nahi sartu, baina hor ezin dugu huts egin. Hemen, baita ere enplazamendua egiten zaio Hezkuntzari, nola ez, gazteetan datuak ere ez direlako askoz hobekak. Gogoeta bat egin behar dugu, baita Justizia sailari ere. Eta besterik gabe, deialdia egiten dugu jende guztia gertura dadin antolatu diren ekitaldietara. Egunerokotasunaz aparte horrelako ekitaldietan jendearen partehartzea inportantea delako.”*
- ... Maite Ruiz de Egulaz, (EAJ-PNV) Berdintasun batzordeburua: *“Bihar indarkeria jasotako denak gogoan izango ditugu. Zoritzarrez hortik pasa den emakume bat edozeinek ezagutzen du. Gure esku dago zerbait gehiago egitea. Ez dadila izan egun batean soilik gogoratzen den arazo larria. Lana etxetik hasi behar dugu; gure bikotea errespetatzea ezinbestekoa da, gure seme alabek ere ikas dezaten bere bikotea errespetatzen. Ikastetxeetan, hezkidetza beldurbarik proiektua landu eta indartu egin behar dugu, gauza bera protokolo mahiarekin, pausoz pauso, atzera pausorik eman gabe; indarkeria sexitarekin bukatzea lortu behar dugu. Udal gobernua, bihar, azaroak 25a, arratsaldeko 8etan, Udaletxe aurrean egingo den kontzentrazioa gonbidatzen zaituzte. Baita datorren astean egingo diren ekintza guztietara ere. Gonbidapen hau bereziki gizonaekoei luzatu nahi dizuegu, emakumeok gure ondoan, gure aldean egotea nahi dugulako.”*
- ... Alkatea: *“Gai honen inguruan esan, giza eskubide urratuena izaten dela munduan emakumearen kontrako indarkeria, eta indarkeria honen oinarri omen da genero desberdintasuna. Orduan, uste dut ez bairik gabe lanean aritu behar garela berdintasuna hori bermatze aldera. Tolosako udalean III. Planarekin lanean ari gara. Onintzak gai honi buruz zertxobait badaki. Bide horretatik jarraitzeko hautua aurkeztu nahi dut.”*

Jarraian, adierazpena irakurri da:

“TOLOSAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, AZAROAREN 25a EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA”

Azaroaren 25a “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna” dela eta, Tolosako Udalak gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai, halaber, sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen arabera rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea.

Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen dela; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera mugatzen da pertsonen askatasuna.

Hori dela eta, saiatu behar dugu bestelako gizarte bat eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira, berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten. Aipatzekoak dira, adibidez, lan esparruan jazarpen sexistari buruz dauden datuak. Egoera horiek bestelako gizarte eraikuntza batean erroitik ezabatuak izan behar dute.

Indarkeria sexistaren aurka lan gogorra egin behar da. Dagoeneko, Euskal Herrian, 4 emakume erail dituzte; gure inguru hurbilekoenean emakumeek festa-esparruetako sexu-erasoak maiz jasotzen dituzte. Baina bestelako zeharkako biolentzia matxistek, eguneroko mikrobiolentziek ere, gora egin dute, eta herritarren artean barneratzeko eta normalizatzeo arriskua ere badago. Biolentzia guztiak, makroak zein mikroak, desagerrarazteko modu bakarra izango da alboratzea haiek zuritu edo babes ditzaketan jardun guztiak.

Ilido horretatik, kontsentsu sozialak sustatzeko, lehentasuna du lidergo instituzional eta politiko bat bermatzea. Beharrezkoa da politika instituzional bereziak sustatzea, eta haiek gauzatzeko baliabide aski izatea. Beharrezkoak dira, orobat, kaleetako errebindikazioak, iritzi publikoa eta jardunbide onak sortzea eta, baita ere, komunikabideetan eta sare sozialetan adierazpen sexistak gogor salatzea. Horrek, nola ez, ezinbestean eskatzen du norbanakoaren erantzukizun pertsonala ere.

Horregatik guztiagatik, emakumeen indarkeria sexistarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzearen, Tolosako Udalak:

Konpromisoa hartzen du, bere eskuduntzen esparruan, udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.

- Emakumeenganako indarkeriaren kontrako protokoloa lantzen eta indartzen jarraituko du, erakundeen arteko lankidetzak hobetzeko eta euskarririk handiena eskaintzeko indarkeria hori nozitzen duten emakumeen eta beren familiei. Bestalde, Hezkidetzak Mahaia sendotuko du, eta aurrera eramango ditu Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean jasota dauden ekintzak.*
- Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Beldur Barik eta Udalak martxan jarritako Beldur Barik-Hi haiz, Hi! Ekimena sustatuko ditu, gazteen arteko eraso mota guztiak prebenitzeko.*

Halaber, sustatuko ditu herrietako jaien testuinguruan sortu diren ekintzak, elkarte zein auzoetatik burutzen diren saioak eta abar, izan ere, guztiak dira beharrezkoak eta babestu beharrekoak.

- *Herritarrak gonbidatzen ditu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, eta gonbidatzen ditu, era berean, azaroaren 25a dela-eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten.*
- *Enplazamendua egiten dio Justizia Sailari, konpromisoa har dezan epaitegietako genero unitateak doitu eta legedia errebisatzeko, delitua indar handiagoarekin jazarri ahal izateko.*
- *Hezkuntza eragile guztien konpromisoa eskatzen du lerro kurrikularretan genero berdintasuna landu dezaten.*

Jarraian, mozioa bozkatu egin da eta, aho batez, **onartu da**.

8. Adierazpen Instituzionala: Euskararen Nazioarteko egunean euskaldun berriari aitortza.

8. Declaración Institucional de reconocimiento a la persona euskaldun berri en el día internacional del Euskera.

Partehartzeak:

... Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE): *“Adierazpenarekin bat nator, bereziki bertan esaten den bezala, euskaldun berri guztiei jendaurreko aitortza erakustearekin.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBILDU): *“Adierazpen laburra da baina mamitsua. Izan ere, Euskal Herri osoan euskarak bizitzen ari den biziberritze posua gero eta gero handiagoa. Bi fenomenori zor zaio neurri haundi batean; bata, nagusitan euskara ikasteari ekin dioten pertsona horiena; horien ahalegina, milaka batzuk dira gure herrian, garai batean gehiago, baina milaka dira eta horietako batzuk adierazgarriak gure gizartean. Eta, bestetik, erdaldun izanik ere, bere seme alabak euskalduntzeko hautua egin duten gurasoena. Horiek omentzea bidezkoa da egin duten lanarengatik. Badakigu gurasoentzako ahalegina izan dela, besteak beste, etxean seme alabei etxeko lanak egiten laguntzeko. Kezka hori askotan sortzen da guraso horiengan. Eskertzekoa da. Merezi dute omenaldi hau eta euskara egun bat euskaldun berriei dedikatzea ondo dago. Aurreko legealdian, Euskara batzordean, behin baino gehiagotan izan genuen irizpide hori. Gure euskara zerbitzuburuak bota zuen Tolosan egin behar genuela euskaldun berrien eguna, plazaren bat dedikatuz. Baten bat ere, bazeukan buruan, izenik ez zuen lekuren bat. Susmoa daukat hemendik atera dela gorantz joan den ideia hori. Poztekoa da hau egin ahal izatea eta espero dugu Tolosan toki egokia aukeratu izango dugula Euskaldun berri horiek omentzeko. Eta, gainera, plaza, kale edo iturri horren inguruan omenaldi edo festa txiki bat egitea, lekuko moduan.”*

... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV), Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeko lehendakaria: *“Euskaldun berriak aipatu dira behin eta berriro. Horiek ekarri diote euskarari hazkundera nagusiki; euskaldun berrien eskutik etorri da. Aipatzen da azkeneko 30 urte hauetan 300.000 direla euskarara hurbildu diren euskaldun berriak, euskaltegietan alfabetatzearen bidez, eta eskolaren bidez. Datu bat ematearren, gazteei begira, 15 urtetik beherako gazteen artean, bi herenak, gehiengoak, ez dute lehen hizkuntza euskera, baizik eta,*

nagusiki, gaztelera, eta hortik dator nagusiki euskeraren hazkundera eta etorkizunean ere hortik etorriko da. Guzti honen inguruan, Euskera batzordean, kaleko erabileraren lanaren aurkezpenean, datuei erreparatuz esan behar da erroldan azaltzen diren datuen arabera bi herenak Tolosan euskeraz badakitela, eta bi heren horien datuak hartuta beste bi herenak euskera ere erabiltzen dutela. Elebidun diren horien % 66k euskara erabiltzen dute. Kale erabileraren neurketa urtero egiten da eta hor adierazi ziren datuak onak dira, batez ere beste zenbait herriekin alderatzen badira. Probabilidaden formula, Txillardegik proposatu zuena, aplikatuz ikusten da euskera erabiltzeko harreman euskalduna behar dela. Horren arabera datu onak ziren, baina ez dugu autokonplazientzian erori behar. Lana asko dugu, gehienbat esparru ez-formalean, eskolatik kanpo. Eskola da gaur egun, bere ahulezi guztiekin, euskararen gotorlekua, baina eskolatik ateratzen garenean, kalean nagusitzen da zenbait esparrutan gaztelera. Orduan, horri begira, pentsatu izan da euskaldun berriei aitortza egitea. Euskalduna berritzen horretan izan da eztabaida, bereizten delako euskaldun berria eta euskaldun zaharra. Eta zergatik bi mailetako euskaldunak?. Hori ere sortu da. Baina denok ulertzen dugu euskaldun berriak merezi duela aitortza bat egitea. Eta horretan esan beharra dago adostasun zabala izan dela, erakunde guztietakoa, alderdi politiko guztiena, EUDELena, UEMarena, Hiriburuen, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren adostasuna. Horrek asko balio du eta horren baitan eskertzekoa denek horren alde egitea.”

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN, EUSKALDUN BERRIARI AITORTZA

Hazkunde prozesua izan da EAEn euskara biziberritzearena, eta bi izan dira prozesu eredugarri horren zutabe nagusiak: hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrak, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik jakin edo jakin ez, euren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren aukera egin dutenak. 2015eko Euskararen Egunean, euskarara hurbiltzeko hautua egin duten pertsonen aitormena egin nahi zaie, euskararen biziberritze prozesua etengabe elikatzen baitute pertsona horiek, eta haien guztien gogo, kemen eta ahalegina omendu nahi dira. Horregatik guztiatik:

- 1.- Udal honek konpromisoa hartzen du heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsona guztiei jendaurreko aitortza erakustea eta udalerriko kale, plaza, lorategi, iturri, areto edo guneren bati laster EUSKALDUN BERRIA izena jartzea.*
- 2.- Hainbeste pertsonak urtetan egindako ahaleginari jarraipena emateko eta aurrerantzean euskararen ezagutzan aurrera pausu sendoagoak emateko doakotasunaren bidean urratsak egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu.”*

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

Lore Agirre Zipitria, EHBILDUko zinegotzia aretotik irten da.

9. Galderak eta eskaerak.

9. Ruegos y preguntas.

Onintza Lasa Arteaga (EHBILDU): ABEGI gaiaren inguruan: *“harrituta gaude gai honekin. Gizarte batzordean, azaroaren 5ean, Aldundiak %30a jaitsi zuela eta adostu genuen hitzarmen bat egitea urte baterako, titularitatez aldatzeko, publikotasunaren inguruan Udala hartzekoetan, baina gero Gobernu batzordean, 16an, jasotzen da Foru Aldundiarekin hitz egin behar dela. Jakin nahi genuke gaia nola dagoen.”*

Alkatea: *“Batzordean hartutako erabakia ez da aldatzen. Aurreko legealdian, erabateko alde bakartasunez, batzordean gomendatu genuen bezala, Diputazioak erabaki zuen ABEGIRI orain arte emandako finantziarioa kentzea eta Udalari bideratzea finantziario osoa. Foru Aldundiko gobernua aldatu denez, batzarrean erabaki genuen Diputaziora joatea eta gaia mahai gainean jartzea.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Kalean ibiltzen garenoi jendeak gelditzen gaitu eta ikusten dugu geroz eta poltsa gehiago, batez ere, Alde Zaharrean. Jendeak poltsak uzten ditu kalean, paper ontzietan ere, Letxuga kalean konstante bat da; kultur etxeko azpiko pasiloetakoak ere, Tonto kalean agertzen ari zaizkigu, Korreo kalean ere. Kezkatuta gaude, “*increscendo*” doazelako; horren inguruan zerbait egin behar dela iruditzen zaigu. Badira hiruraste, azkeneko batzordean eskatu genuela ehun miletako karteltxoak kentzea. Ez dakit lanpetuta ibiliko zareten, baina gauza batzuetan atentzioa jartzea beharrezkoa da. Horri lotuta ere, edukiontzi asko irekita daude, batzuk hautsita. Ez dakit utzikeria den edo zeren ondorio den, baina jakin nahi genuke horren atzean bazaudeten, konturatu al zareten eta honen aurrean zer egiteko asmoa duzuen.”*

... Alkatea: *“Egia da, gero eta poltsa gehiago agertzen dira edukiontzietatik kanpo. Horren aurrean, kale garbiketa zerbitzuak hasi zen hasieran 2 aldiz biltzen, 3, 4 eta orain bagabiltza 5. arekin. Bost aldiz pasa behar dute jasotzea edukiontzitik kanpo dauden poltsak biltzeko, edukiontziak garbi mantentzearen. Seguraski zabor bilketaren inguruko batzordean, lehen txosten tekniko bat ere aurkeztuta dago, baina izango duzue beste batzorde bat gai honen inguruan guk aurkeztu dugun planteamendua zein den jakiteko, xehetua. Seguraski ezohiko pleno bat egin beharko dugu. Egin nahi genuke urtea bukatu baino lehenago, bilketa eredu honi buelta bat emateko.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Hala ere ulertzen dut lotzen ari zaretela zabor bilketa sistema kalean dauden poltsa horiekin eta, argi utzi nahiko genuke, gu udalean geundenean poltsaren bat bazegoela, baina ez gaur egungoa, ezta gutxiago ere. Kezkatzen du egoerak, “*in crescendo*” doa. Ez dugu horrela pentsatu nahi, baina badirudi sistema aldaketa bat arrazoitzeko forma bat dela. Argi utzi nahiko genuke hau kontrolatu behar dela, hau da, jendearen gainean egon behar dela. Badago agian formula bat -hau da, zuk umeari esaten diozun bezala semaforoak errespetatzeko eta zerorrek ez baduzu errespetatzen, azkenean umeak ez du errespetatzen- hau da ohituraz. Guk planteatzen genuen bezala, presioa handitzen genuen, argi geneukalako berziklatzea egin behar bat zela. Orain berziklatzea aukerakoa bilakatzen denean, jendea nahastuta horregatik uzten du. Okerreana da, poltsa hauek nahastuta daudela daudenak. Beraz, horren inguruan ez genuke nahi lotzea sistema hau poltsa hauekin, agian, honen atzean jendearen boikota ote dagoen...”*

... Alkatea: *“Nik aseguratuko dizut gu ere oso arduratuta gaudela gai honekin. Ez da, urrutitikan ere, nahita egindako ezer, gero ezer justifikatzeko. Lehen ere guk bilketa eredu bat aski justifikatu genuen eredu hau jarri aurretik, horrelako marrullakeritan erori gabe. Beraz, hori aseguratzen dizut dagoeneko.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Beste galdera. Gaur aurkeztu duzuen hondakinen*

prebentzioaren astea, aurreko astearen energiaren prebentzio astea egin zenuen, hauek ez dira batzordetik pasa, hau da, jakin berri dugu komunikabideetatik. Eskertuko genuke batzordetik pasatzea eta programak adostu, elikatu edo hobetu. Eskertuko nuke hauen berri guri ematea, 3800 bozkatzaileen babesa ere badugulako eta komunikabideetatik berri ez izatea. Batzordetik gai horrek pasatzea badu bere garrantzia”.

... Patxi Amantegi Zubiriak (EAJ-PNV) hurrengorako batzordetik pasako dutela adierazi du.

... Igor Ezenarro Balda (EHBILDU): *“Gaur jaso dugu korreoa Kultura, Festak eta Gaztediko batzordekoa Iñauterietako karroza eta konpartsen lehiaketarako oinarriak hurrengo batzordean pasako direla eta aurreikusten dela abenduaren 9an egitea, baina lehiaketan partehartzeko epea hile honetako 30ean zabaldu nahi dela. Jaso dugu zein izango diren arauak, egin duzuen aldaketaren berri ematen duzue, hau da, karroza eta konpartsen emanaldietan gauen murrizketa izango dela; ordu batean bukatu beharrean gaueko hamabietan izango dela. Harrituta nago, aldaketa hori ez da ez batzordetik, ezta inongo bileratik pasa, presa daukazuelako. Harrituta nago ordu aldaketa hori ez delako mahai gainean jarri.”*

... Nuria Carbonell Miranda, (EAJ-PNV) Kultura, Festak eta Gaztedia batzordeko lehendakaria: *“Iñauterietako koordinazio bileran hartu zen erabakia, Udaltzainek gomendatu zutelako eta mahai hartan geundenok adostu genuen baiezkoa. Horregatik, bidali zaizue zuen iritzia jakin nahian eta ondoren jendeari ere zabalduko zaie. Kontua da, ireki behar dela epea izena emateko, jada zuzenean jarri nahi da ordu bat finkatuta. Hori izan da bidali izanaren arrazoia.”*

... Igor Ezenarro Balda (EHBILDU): *“Ulertu dezaket batzordearena eta gure iritzia jakin nahi izatea, baina jendeari nola abisatuko zaion jakin nahi nuke, hemendik 30era ez badago bilerarik eta inongo diskusio fororik gabe. Zinegotzi artean iritzia partekatzeko arazorik ez dago, baina karrozetan partehartze dutenei entzun behar zaiela iruditzen zait. Arauak banatu eta batzordean onartu “a posteriori” ez zait egokia iruditzen.”*

... Nuria Carbonel Miranda (EAJ-PNV): *“Jendeari jakinaraziko zaio emailez konbokatoria guztiak bezala. Jai batzordeak eta bilerak hor daude zuen iritzia jaso ahal izateko. Aldaketa ordu batena izango da, eta horrela bada, jakinaraziko zaie”.*

Besterik gabe, gaueko 9etan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 9 de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA